



2021-2022ko IKASTURTEA: INFORMAZIOA ETA HASIERA-DATAK

IKASLE BERRIAK

Joaquín Maya Musika Eskolako Komunitateak –zuek ere jada horren parte zarete– ongietorria ematen dizue.

Eskola-jarduna osasun-baldintza egokienetan egin dadin, beste **Kontingentzia Plan** bat **(21-22)** eratu dugu, Eskolaren webgunean kontsultagai dagoena. Plana elkarlanean prestatu dute Musika Eskolako Zuzendaritza Taldeak, Hezkuntza, Herritarren Partaidetza eta Gazteriako Alorrak eta Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak.

Hona jarraian informazioa data eta epe nagusiei buruz eta ikasturte-hasierako antolaketaz:

Kontingentzia Planean eta ikasturtearen antolakuntzan jasota dauden neurri guztiak aldatzen ahalko dira osasun eta hezkuntza arloetako agintariek agitzen dutenaren arabera.

1. Instrumentu-hautaketa I: AURREZ AURREKO DERRIGORREZKO ERAKUSTALDIA Eskolan

Irailaren 1ean, 2an, 3an eta 6ean, arratsaldean, Instrumentu-erakustaldia egingen da, Musika Eskolako ekitaldi aretoan. Horrela, espezialitate bakoitzeko irakasleak ezagutzeko aukera izanen duzue, bai eta instrumentu guztiak zuzenean ikusi eta entzuteko ere, instrumentu-eskaera egin baino lehen.

Derrigorrezkoa da ikasle berriak erakustaldira **joatea**. Ikasle bakoitza **bi egunetan ordubetez** bertaratu beharko da. **ADINGABEKO IKASLE BAKOITZA HELDU BAKAR BATEZ LAGUNDUTA JOATEN AHALKO DA. ADINEZ NAGUSIKO IKASLEAK EZIN IZANEN DIRA LAGUNDUTA BERTARATU.**

Ikasle berri bakoitzak zein ordutegitan joan beharko duen Eskolako webgunean argitaratuko da bai eta posta elektronikoko **bidez igorri 9ean**

OHAR GARRANTZITSUA: ERAKUSTALDIRA JOATEN EZ DENA AZKEN TOKIAN GERATUKO DA INSTRUMENTUA AUKERATZEKO ZERRENDAN.

2. Instrumentu-hautaketa II: instrumentu-eskaintzako webgunea



Instrumentuak eta horien irakasleak sakonago ezagutu ahal izateko, instrumentu-
eskaintzari buruzko web-orrian sar zaitezke, <http://www.pamplona.es/escuelademusica>
eskolako webgunearen bidez.

Irailaren lehenbiziko egunetan, mesedez, hartu behar adina denbora
instrumentuen eskaintzako webgunea bisitatzeko. Zalantzarik eta kontsultarik egin behar
izanez gero, eleccioninstrumento@pamplona.es posta-helbidera idatzi, irailaren 1etik 6ra
bitarte.

3. Instrumentu-hautaketa III: instrumentu-eskaera

IRAILAREN 7AN, ASTELEHENAREKIN, instrumentu-eskaera eginen da
webguneko formulario baten bidez. Esteka Eskolaren webgunean argitaratuko da.
Nahitaez 10 instrumentu hautatu behar dira, lehenetsun-ordenaren arabera.

Eskaera egiten ez dutenak onartuen zerrendako azken postura igaroko dira,
zozketan eskuratu zuten zenbakia kontuan hartu gabe, eta eskaera egin duten ikasleen
instrumentu-esleipena amaitu eta gero bete gabeko toki gehien dituen instrumentua
esleitu zaie.

Instrumentuak ekainean egindako zozketaren hurrenkeraren arabera esleitu
dira. Ikasleak hautatutako 10 instrumentuetatik bakar baterako ere tokirik ez badago,
tokiak bete gabe dituen beste instrumentu bat esleitzen zaio.

Irailaren 9an, 15:00etatik aurrera, esleitutako instrumentuen zerrenda
<http://www.pamplona.es/escuelademusica> webgunean argitaratuko da, eta bertan jasoko
da nor den instrumentuko irakaslea eta zein ikasgelatan ematen dituen eskolak.

4. Musika-hizkuntzako, Koru taldeko eta Harmoniako ordutegiak

Abuztuaren 23an, astelehenarekin, 15:00etatik aurrera, Eskolako webgunean
<http://www.pamplona.es/escuelademusica> argitaratuko da matrikulatutako ikasleek
ikasiko dituzten irakasgaien zerrenda, espediente-zenbakiaren ordenaren arabera.
Musika-hizkuntza eta Koru zein Harmonia irakasgaietarako, esleitutako taldea eta
ordutegia adieraziko dira.

5. Eskaerak, Musika-hizkuntza /Koruko eta Harmoniako taldez aldatzeko

Epea: Abuztuaren 23tik 26ra bitarte, biak barne. *Ez da onartuko eskaerarik epez
kanpo.*

Aldaketa-eskaera egiteko formulario bat bete behar da:
<http://www.pamplona.es/escuelademusica> webgunera sartu eta bertan eskuratu
daiteke.



Ez dira inolaz ere onartuko taldea aldatzeko eskaerarik baldin eta horretarako arrazoia bada esleitutako ordutegia bat datorrela eskolaz kanpoko beste jarduera batzuen ordutegiarekin.

Aldaketak egiteko honako **arrazoi** hauek baino ez dira onartuko, **betiere aldaketa posible bada taldeen arteko baliokidetzen eta horietako bakoitzean dauden toki libreen arabera**, eta a) eta b) kasuetan egiaztatgiriak aurkeztu behar dira¹:

- a) Derrigorrezko irakaskuntzako eskolako ordutegiarekin batera izatea.
- b) Behar bezala justifikatutako osasun-zioak.
- c) Musika-hizkuntzako beste talderen batean matrikulatutako anai-arrebak izatea.

6. Behin betiko zerrendak: Musika-hizkuntzako, Koruko eta Harmoniako ordutegiak eta taldeak eta hastapen-mailako ikasleei esleitutako instrumentuak

www.pamplona.es/escuelademusica webgunean argitaratuko da irailaren 7an, asteartearekin, 15:00etatik aurrera

7. Eskolen hasiera: datak

Irakasgaia	Eskolen hasiera
Musika-Hizkuntza eta Korua, harmonia eta instrumentua (maila guztiak)	Irailak 16, osteguna
2. zikloko ikasleendako derrigorrezko Instrumentu eta ahots-taldeak (5. mailatik 8. mailara)	Urriak 5, astelehena
<ul style="list-style-type: none"> - 1. zikloko ikasleendako instrumentu-taldeak - 2. zikloko ikasleen 2. Taldea 	Azaroak 2, asteartea

8. Instrumentu-ordutegien eta -taldeen esleipena.

Telefonoz esanen zaie ikasleei zer instrumentu-ordutegi eta -talde esleitu zaizkien.

¹ Acuerdo de Consejo de Centro de 18 de octubre de 2012 – Eskola Kontseiluak 2012ko urriaren 18an hartutako erabakia



Irailaren 9an, informazio-orri bat argitaratuko da www.pamplona.es/escuelademusica webgunean esateko zein egunetan eta zein ordutatik zein ordutara jarriko diren irakasleak beren ikasleekin harremanetan, instrumentuko eskola egunak eta orduak finkatzeko.

- Horretarako, matrikulan ikasleek emandako telefono-zenbakira deituko dute.
- Ikasleei deituko zaie bakarrik irakasle bakoitzari esleitutako ordu-tartearen barruan eta, betiere, Barne Funtzionamendurako Araudian ezarritako ordena errespetaturik.
- Gehienez 2 aldiz deituko zaio ikasle bakoitzari. Bigarren deian ere ez badute hartzen, ikasleari libre geratutako ordutegia esleituko zaio.
- Eskolak ez ditu hartuko xede honetarako esleitutako ordutegian egiten zaizkion deiak. Izan ere, irakasleak jarriko dira harremanetan beren ikasleekin.

Hona Barne Funtzionamendurako Araudian instrumentu-ordutegia hautatzeko ezarritako hurrenkera:

1.a. Mugikortasun murriztuko ikasle desgaituak eta antzeko kasuak –Eskolako Zuzendaritzak banaka balioetsiko ditu–, ikasleen adina kontuan hartu gabe.²

2.a. Behin mugikortasun murriztuko ikasle desgaituek ordutegia hautaturik, gainerakoek ordutegia hautatzeko hurrenkera ikasleen jaiotze-dataren arabera ezarriko da, gazteenetik hasita.

9. Kontingentzia plana: zenbait antolakuntza-neurri³

- Hezkuntza-komunitateko pertsona guztiek maskara jantzita joan beharko dute Eskolara eta jarrita edukiko dute Eskolako jardunak dirauen bitartean, salbu eta haize-instrumentuen kasuan, zeinentzat distantzia- eta babes-neurri berariazkoak ezarriko baitira.
- Aita-amak eta Eskolaz kanpoko jendea ezin izanen dira eraikinean sartu ezta bertan egon ere eskola-orduetan.
- Mesedez, puntualak izan hala etortzean nola ikasleak jasotzean, jende-pilaketarik ez izateko eta ikasleak zain egon ez daitezen.
- Eskolako lehen egunetan, eta ezarritako protokoloak hobeki ikaste aldera, irakasleek ikasleei lagunduko diete ikasgeletara.
- Itxarongela ezin izanen da erabili kontrakoa abisatu arte.

² Eskola Kontseiluak 2020ko ekainaren 29an hartutako erabakia

³ Neurri nagusien laburpena da. **Kontingentzia Plan osoa hemen kontsultatu:** www.pamplona.es/escuelademusica



10. Baja-eskaera eta matrikularen itzulketa

Matrikularen zenbatekoa itzultzeko eskatzeko muga-eguna: Irailak 30.

Eskolan ez jarraitzea erabaki eta matrikula deuseztatu nahi duten ikasleek ordaindutakoa itzultzeko eskatzen ahalko dute, administrazio- eta kudeaketa-gastuei dagokien zenbatekoa salbu (40 euro), Iruñeko Udaleko edozein erregistroan eskabidea aurkeztuta. Halaber, erregistroan eman beharko dute, baja eskatzeko eskabidearekin batera, transferentzia bidez ordaintzeko eskabidea, non zehaztuko baita zein kontutan jaso nahi den itzuli beharrekoa. Bi inprimaki horiek www.pamplona.es/escuelademusica webgunean daude eskuragarri.

Kontingentzia Plan osoa hemen kontsultatu:

www.pamplona.es/escuelademusica

**JARRAI GAITZAZU SARE
SOZIALETAN!**

Facebook: [escuelademusicajoaquinmaya](#)

Instagram: [escuelamusicajmaya](#)

Twitter [@escuelajmaya](#)